

Aldi baterako erakusketa ikastetxeetan: EMAKUME ZIENTZIALARIAK

Astebetetz izango dira ikastetxean, denentzat ikusgai, 6 emakume zientzialarien panel informatiboak. Helburua da ikusaraztea emakumeek ere ekarpen handiak egin izan dituztela (orohar gizonezkoek baino oztopo handiagoak gaindituz, gainera) eta egin ditzaketela, zientzia eta gizartera.

- Lanketa DBH-ko lehen mailentzat gomendatzen da
- Mutil eta nesken arteko berdintasuna sustatzen du, aurreiritziak gainditzen lagunduz erreferenteak erakustearen bidez

Nola prestatzen da?

1. Panelak ikastetxera eramatean, aurkezpen bat egingo zaie ikasleei.
2. Erakusketa jartzen denetik denbora-tarte batera, klasean horri buruzko ariketa bat burutuko da.
3. Ariketa: taldeka banatu, talde bakoitzak zientzialari bat aukeratu eta aurkezpen bat prestatu.



Aurkezpenerako gidoia guk emango dugu

Eskaleta. Ikastetxean

Denbora	Inplementazioa
10 min	Irakasleak: panelak ZTIMULab txokoan kokatzean, aurkezpen txiki bat egingo du ikasleentzat, aldi baterako erakusketa zertan datzan azalduz
Aste 1	Erakusketa ikusgai egongo da guztientzat ZTIMULab txokoan .
30 min	Irakasleak: Ikasgelan, ikasleak taldeka banatu (6 taldetan) eta talde bakoitzari panelean agertzen den emakume bati buruzko aurkezpen labur bat prestatzeko eskatu. Ikasleek: aurkezpenak prestatu, ondorengo puntuak bilduz: <ul style="list-style-type: none">• Biografia labur bat• Ekarpen garrantzitsuenak• Aurre egindako zailtasunak• ...
1 h	Ikasleek: talde bakoitzak 10 minutuko aurkezpen bat egingo du gela guztiarentzat ikasgelan.

